

**ETXEPARE INSTITUTUaren PATRONATUaren BILERA  
REUNIÓN DEL PATRONATO DEL INSTITUTO ETXEPARE**

2020-07-21 Lehendakaritza 21-07-2020

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Etxepare Institutuko zuzendari nagusia, Patronatuko kideok bai bideokonferentziaz jarraitzen duzuen guztiok, arratsalde on eta eskerrik asko gurekin bat egin duzuen guztioi; bai aurrez aurre, bai bide telematikotik.

Une zailak bizitzen ari gara, baina lanari ekin behar diogu, arlo guztietan. Herri honek beti jarraitu du lanean, unerik zailenetan ere. Jakin badakigu hori dela bide bakarra aurrera egiteko. Beraz, ez dago etsipenerako tarterik.

Gaurko bilera honen helburua da, batetik, aurreko patronatutik hona Institutuak egindakoaren berri ematea; eta, bestetik, datozen hilabeteotarako lan-ildoez informatzea.

Sailburuari eta zuzendariari hitza eman aurretik, gogoeta labur bat partekatuko dut azken hamabi hilabeteok eman dutenaz.

Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dut 2019a mugarri izan zela Etxepare Institutuentzat.

Como sabéis, el pasado año se desarrolló la iniciativa “Scotland Goes Basque”. Una experiencia que nos marca el camino a recorrer los próximos años.

Desde que surgiera hace una década, Etxepare ha llevado el talento de las y los creadores vascos por todo el mundo. Ha convertido la cultura en la mejor carta de presentación de nuestro país y a las y los creadores en nuestros mejores embajadores.

El año pasado Etxepare añadió un nuevo reto: seleccionar un país y convertirlo por un tiempo en el gran escaparate de la cultura vasca. Esta es una iniciativa que vamos a potenciar en sintonía con la estrategia Euskadi-Basque Country de internacionalización.

Gure ikuspegitik egindakoaren balorazioa oso positiboa izan da:

-Alde batetik, euskal sortzaileak punta-puntako mundu osoko sortzaileekin batera aritu ziren. Ikusi genuen bikain aritu zirela eta maila ona eman zutela. Oso esperientzia aberasgarria gure sortzaileentzat, eta ikasitakoa bueltan ekarri dute.  
-Bestetik, munduan sona handia duten Eskoziako jaialdiak gure herriaren eta kulturaren erakusleho bilakatu genituen.

Horiek horrela, aurtengo helburua zen bide horri ekitea. Quebec izan behar zuen bigarren geldialdia, harik eta Covid-19k mundua hankaz gora jarri arte.

Honekin lotuta, bigarren ideia bat: Etxepare Institutuak lan handia egin du, eta egiten ari da, 2020rako lotuta zuen programazioa epe laburrenean berreskuratzeko, ahal bada datorren urtean bertan. Helburua izan da lan esker ga eginda lotutako konpromisoak gal ez zitezela. Eta, kasu honetan ere, emankorra izaten ari da egindako lana.

Irakaskuntzaren arloan ere, ahalegin handia egin da erantzun egokiak bilatzeko. Dakizuen moduan, Etxeparek bi sare ditu. Alde batetik, unibertsitateen bitartez bideratzen den irakaskuntza: 35 irakurletza eta 9 katedra. Bestetik, Euskara Munduan programa, mundu osoko 80 euskal etxeetan euskara eskolak eskaintzen dituen.

Euskara eta euskal kulturaren interesa duten mundu osoko ehunka ikasleek aukera izan dute beren formakuntza on-line bidez jasotzeko. Arlo honetan ere erakutsi da Etxeparearen gaitasuna egoera berrira egokitzeko.

Amaitzera noa.

Covid-19ak globalizazioaren aurpeirik gordinena erakutsi digu.

La Covid-19 nos ha mostrado la cara más dura de la globalización. Como he comentado en otras ocasiones, el proceso de globalización condiciona por completo este momento histórico. Lo hemos visto, y vivido, con toda la crudeza estos últimos meses.

El proceso de globalización es un hecho. Lo que está en nuestra mano es decidir cómo queremos afrontar este proceso. El trabajo que está realizando el Instituto Etxepare es precursor en el terreno cultural y nos ofrece claves de interés para seguir avanzando, desde Euskadi Basque Country, en este reto global.

El Instituto Etxepare demuestra el poder positivo de la diversidad en el mundo global, como alternativa frente a la uniformización cultural. Demuestra, además,

que la cultura nos ofrece una vía extraordinaria para mostrarnos al mundo y fortalecer la convivencia con otros países.

Kulturak hariak eskaintzen dizkigu beste herrialdeekin harremanetan jartzeko eta loturak estutzeko. Kultura elkar ulertzeko hizkuntza bat eskaintzen digu.

Jarrai dezagun Etxepareren hariak indartzen, kulturaren bidea lantzen eta sendotzen.

Eskerrik asko guztioi.